

47/2020 EBAZPENA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK DITUEN ANTOLAKUNTZAN GOI-MAILAKO TEKNIKARI LANPOSTU BAT BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNEZ/ ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENEZ/ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA HUTSIK UTZI DELA ADIERAZTEN DA.

Giza Baliabideetako Zuzendaritza honek, ekainaren 5eko 453/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzan Goi Mailako Teknikari lanpostu bat, ezagupen espezifikoekin, behin betiko mugikortasunaren/ aldi baterako barne-sustapenaren/zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko deialdia ikusirik.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, bi eskaera jaso dira.

Balorazio Batzordeak erabaki zuen Giza Baliabideen Zuzendaritzari proposatzea behin betiko mugikortasunaren/ aldi baterako barne-sustapenaren/zerbitzu-eginkizunen sistemen bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzan Goi Mailako Teknikari lanpostua, ezagupen espezifikoekin, betetzeko deialdia hutsik uztea.

Hautagai batek ez ditu betetzen lanpostua hornitzeko sistema horietan parte hartzeko betekizunak (behin betiko mugikortasunaren/ aldi baterako barne-sustapenaren/zerbitzu-eginkizunak), ez baita pertsonal finkoa.

Eta, bigarren hautagaiari dagokionez jarraitutako prozesuan egiaztatu denez, ez ditu betetzen deialdian ezarri ziren ezagupen espezifikoekin alderdi esentzialak.

RESOLUCIÓN 47/2020, DE LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA POR LA QUE SE DECLARA DESIERTA LA CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN MEDIANTE MOVILIDAD INTERNA DEFINITIVA/PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL / COMISIÓN DE SERVICIOS DE UN PUESTO DE TÉCNICO SUPERIOR DE ORGANIZACIÓN CON CONOCIMIENTOS ESPECÍFICOS DE LA DIRECCIÓN GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.

Vista la convocatoria para la provisión mediante movilidad interna permanente/ promoción interna temporal/comisión de servicios de un puesto de Técnico Superior de Organización con conocimientos específicos en la Dirección de Recursos Humanos de la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, realizada mediante la Resolución 453/2019, de 5 de junio, de esta Dirección de Recursos Humanos.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, consta la presentación de dos candidaturas.

La Comisión de Valoración acordó proponer a la Dirección de Recursos Humanos declarar desierta la convocatoria para la provisión por el sistema de movilidad interna permanente/ promoción interna temporal/comisión de servicios, del puesto de Técnico Superior de Organización, con conocimientos específicos, en la Dirección de Recursos Humanos de la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Una de las candidatas, no cumple con los requisitos de participación respecto a los sistemas de provisión establecidos en la convocatoria (movilidad interna permanente/ promoción interna temporal/comisión de servicios), dado que no es personal fijo.

Y, en relación con la segunda candidata, en el proceso seguido no han quedado acreditados aspectos esenciales de los conocimientos específicos contenidos en la convocatoria.



Azaldutako guztiagatik, indarreko legeriak emandako ahalmenak langileei buruz ezarritako baldintzekin bat etorriz, Zuzendaritza honek

Por lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente, esta Dirección

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzan Goi Mailako Teknikari lanpostu bat, ezagupen espezifikoekin, behin betiko mugikortasunaren/ aldi baterako barne-sustapenaren/zerbitzu-eginkizunen bidez hornitzeko deialdia hutsik geratu dela adieraztea. Deialdia Giza Baliabideetako Zuzendaritza honen ekainaren 5eko 453/2019 Ebazpenaren bidez egin zen.

Bigarrena.- Osakidetzako Intranetean Ebazpen hau argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

RESUELVE:

Primero.- Declarar desierta la convocatoria para la provisión mediante movilidad interna permanente/ promoción interna temporal/comisión de servicios de un puesto de Técnico Superior de Organización con conocimientos específicos, en la Dirección de Recursos Humanos de la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud realizada mediante la Resolución 453/2019, de 5 de junio, de esta Dirección de Recursos Humanos.

Segundo.- Ordenar la publicación de la presente resolución en la Intranet de Osakidetza.

Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes, de conformidad con lo dispuesto por la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 27an/Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 2020



Osakidetza
María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

D. ^a **María Pilar Uriarte Brizuela**

GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA/ DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS